

Berotegi-efektua
eta tximeletak

Gure planetan CO₂ gasaren proportzioa igota sortu den berotegi-efektuak Amerikako *Euphydryas editha* tximeleta-espezieiari kalteak eragin dizkio. Kaliforniako Santa Barbarako Unibertsitateko Kamila Parmesan biologoak dioenez, espezie hau poliki-poliki ezkututzen ari da. Laranja-koloreko



Amerikako *Euphydryas editha* tximeleta-espeziea poliki-poliki ezkututzen ari da berotegi-efektuak eraginda.

hegoak dituen tximeleta hau tenperatura-aldaketekiko oso sentikorra da. Beldarra besterik ez denean, bizi edo hil inguruko hostoek erabakitzen dute. Beroaren eraginez iharitzen badira, beldarrarenak berehala egiten du. Tximeleta honek migrazioa oso noizbehinka baino egiten ez duenez gero, urritzen hasteak batezbesteko tenperaturak gora egin duela esan nahi du.

Parmesan biologoak Kanadatik Mexikorainoko *Euphydryas editha* tximeleta-populazioa kontrolatu du eta emaitzak oso kezagarriak dira: latitude baxuenetan hiru laurdenak galdu egin dira. Latitude altuenetan, berriz, lehen baino zertxobait hobeto dabilta izotzak eta hotzak gutxiago jotzen dituelako.

Finlandiako zaborrak

Finlandian 180.000 laku eta 338.000 km² baso daudela kalkulatu da, baina zaborrak erretzerik inon ez dute nahi. Etxetako zaborrak erre ordez (garestiegia dela diote), nahiago dute osagaiak berezita biltezea. Beirazko eta metalezko enbalajeen % 90 edukiontzi berezietara bota eta hilean behin jasotzen dute. Zabor organikoak, berriz, bi hilean behin bildu eta ongarriak egiteko plantara eramaten dituzte. Corenso etxeak fruita-zukuen eta esnearen kartoizko ontzien % 10 jasotzen ditu paper-zuntzarekin kartoizko arrabolak egiteko. 1995. urteko azken hiruhilekoaren ondoren 20.000 tona tetrabrik birziklatu dira. Gainera Finlandian erabilitako paperaen % 60 birziklatua da, eta harrigarria dirudi Europako lehen fabrikatzailea izanik maila hori izatea.



Suteak satelitez kontrolatu nahi dira.

Suteak eta sateliteak

Europak urtero 650.000 hektarea baso galtzen du bertan izaten diren 45.000 suteetan. Uda izaten da horretarako sasoirik arriskutsuena eta Europako Batzordeak *Fuego* izeneko proiektu berria osatu du. Helburua sutea sortu bezain laster satelitez detektatu eta berehala itzaltzeko sarea prest edukitzea da.

Eguzkitiko energia
merkea

kertzailleek diotenez, Eguzkitiko energiak beste gainerako energiak motei 2010. urtean lehia egingo die. Industriako jendeak, ordea, horretarako 2020. urterarte itxaron behar dela uste du. Hori esateko munduan modulu fotovoltaikoek izan duten eboluzioa hartzen dute kontuan. Izan ere, 1986. urteaz gero Eguzkitiko energia elektriko bihurtzen duten zelula hauen merkatua hirukoiztu


egin da. Oraingoz Ipar Amerikan merkatuaren % 41 asetzeko adina fabrikatzen da eta han produzitzen denaren % 70 esportatu egiten dute.

Tigrea azkenetan

Tigrea Indonesiako Bali irlatik 40.eko hamarkadan ezkutatu zen eta Java irlatik 80.eko hamarkadan. Orain, berriz, badirudi txanda Siberiakoari heldu zaiola. Izan ere, berrehun baino gutxiago dira dagoeneko. Gaitzak sendatzeko ahalmen miresgarriak zituelakoan harrapatzen zen garai batean, baina orain beste moda batek mehatxatzen du; Errusiako aberats be-

40.eko hamarkadan Baliko tigrea desagertu zen, 80.ekoan Javakoa eta orain Siberiako tigreen txanda da.





rriek beren etxeak do-
toretzeko tigrearen
larruak nahi baitituzte.
Joera hori dela eta, Si-
beriaiko Ekialde Urru-
neko langabetuak tigre-
ak ehizatzen bultzatzen
ditu, nahiz eta zigor gisa
isun handiak ordaindu
eta hiru urterako kar-
tzelara joan beharra
egon.

Amba izeneko ekolo-
gista-taldeak zaintze-la-
netan agintariak orde-
zkatu nahi ditu, Siberia-
ko hain lurralde zaba-
lak kontrolatu ezin di-
tuelako.



Coloradoko Arroil Handiko presa hustuz,
onura ekologikoa lortu nahi dute zientzilariek.
Izan ere, bertako sedimentuen bidez hondartza
berriak sortzea espero dute.

Mamut hibridoak

Japoniako zientzilaria-
batzuk Siberiara joa-
tekoak dira izotzetan
kontserbatu diren
mamuten esperma
jasotzeko asmoz. Gero
elefantearen obulua *in
vitro* ernaldtu nahi dute,
mamutaren eta elefan-
tearen hibridoa atera-
tzeko.

Coloradoko Arroil Handiko presa

Coloradoko Arroil
Handian Glen Can-
yon-en dagoen
presa azpiko ura-
ren balbulak irekita
hustu egin zuten egun
batzuetan joan den uda-
berrian. Ez zen larrialdia-
ren batek eraginda
hustu, noski; garai bate-

ko giro naturala berriz
ezartzeko baizik.

Colorado ibaiak 2.250
kilometroko luzera du
eta Kalifornia, Arizona,
Utah eta Colorado es-
tatuetako lurak urezta-
tzen ditu eta udaberrian
presa egin baino lehen
bezalaxe bostehun mila
milioi litro ur eta sedi-
mentu ibili dira ibaian.
Saiakuntza horretatik
zientzilariek onura eko-
logiko ikaragarria lortu
nahi dute. Sedimentuen
bidez ibai-ertzetan ehun-
daka hondartza berri
sortzea espero dute.
Bertan landareak haziko
direla uste dute eta lan-
dareen ondoren fauna
ere ugala daiteke.

Papuek arriskutan

Ginea Berria irla bi
estaturen menpe
dago. Mendebal-
deko zatian, Irian-
Jaya izenekoan, Indo-
nesiak agintzen du eta

bertako papuek gero
eta arrisku handiagoak
dituzte bizirik irauteko.
Ondoezaren seinale
dira Jayapura hiriburuan
ehundaka aborigen ar-
matuk burutu dituzten
matxinada odoltsuak;
indonesiarrek biztanle-
ak erbesteratu edo hil
egiten baitituzte.

Papuen etsai nagusia
Indonesiako armada da.
Soldaduek egindako
gehiegikeriak azalduz
Eliza katolikoak txoste-
na argitaratu du. Indo-
nesiako gobernuak kon-
tzesio ugari saldu die

mendebaldeko meagin-
tza- eta zurgintza-kon-
painiei eta hauen mer-
tzenario bihurtu dira
militarrak. Estatu Ba-
tuetako Freeport kon-
painiak adibidez, mun-
duko urre-meatze han-
diena ustiatzen du Ti-
mika izeneko lurraldean
eta 50 km² poluitzen
ditu meatzearen ingur-
uan.

Papuek duten beste me-
hatxu bat javatarren in-
migrazioa da. Artxi-
pe-
lagoko irla nagusian biz-
tanle gehiegi dagoela
eta, ugari etortzen dira
Irian-Jaya-ra. Inmigra-
zioa dela eta, ordea, lu-
rrak lapurtu egiten diz-
kiete eta kultura des-
berdinen arteko kon-
pondu ezinak izaten di-
ra. Javattarrak, adibidez,
musulmanak dira eta
zerriak jatea debekatu-
rik dute. Papuen kultu-
ran, ordea, zerria da eli-
kadura-iturri nagusia eta
trukerako erabiltzen
dute.



Ginea Berriko Irian-Jaya izeneko
zatian bizi diren papuek arazo larriak
dituzte bizirik irauteko.

